

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

156n. Zenbakia urrilla  
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



- EUSKERAZAINTZAREN IZENEAN
- AJURIA-ENEA'N
- ARDANTZA LENDAKARIAGAZ
- ALKAR-IZKETA SAKONEAN

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

**1991-92 I KASTU RTEA**

**OGEITALAUGARRENA  
BIZKAIERAZ**

**IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN  
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

**ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN**

**ORDANA: 12.000 pezeta**

**IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK**

**COLON DE LARREATEGI, 14-2  
BILBO.**

**URRUTIZKIÑA 423.53.22**

**24.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION**

**DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES  
O MARTES Y J U EVES**

**HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE**

**CURSO COMPLETO: 12.000 pesetas**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**

**COLON DE LARREATEGUI, 14-2 - BILBAO.**

---

---

# EUSKERAZAINTZA LENDAKARIAGAZ

---

---

Aspaldiko guraria gendun Lendakariagaz alkar-izketa izatea eta orretarako eskaria zuzendu be bai Aju-ria-Enea'ra. Uztaillaren azkenetarako ipiñi euskuen orretarako eguna eta egun orretan bertaratu gintzazan gogotsu.

Arrera bera atsegingarria izan jakun. Pizka bat ordua baiño beranduago artu ginduzan, baiña aurreatiaz Lendakariaren izenean ori iragarrita. Gero bera etorri jakun itxaroten gengozan aretora eta banan agurtu ginduzan. Beste barik batzar-tokira joan gintzazan eta gure alkar-izketa asi, oiturazko argazkiak egín ondoren. Argazki oneik, urrengo egunetan bakoitxak geure etxeetan eta bakoitxari dagokiguzanak artu genduzan.

## Zertarako?

Ikustaldi au gertatu genduanean, oneik ziran gure el-buruak: Lendakaria agurtu, gure Erakundea ta onen el-buruak eta lanak obeto ezagutu dagizan barriak emon, gure arazoak agertu...

Euskerearen gaurko egoerea eta gure Erakundeak arlo onetan artu dauan bidea agertu geuntson lenengo ta bein, eta Lendakariak arazo onen barria ba-eukala esan eban. Alkarrari entzuteko era ona izan zala ezin ukatu.

Gure lanen barria emon geuntsan gero zeatz eta meatz: Argitaratzen doguzan aldizkariak, idazten dogu-zan liburuak, egiten doguzan batzarrak eta aztertzen do-guzan gaiak, laster beteteko ustez gaur doguzan asmoak eta abar. Lan zerrrenda luzea ta jakingarria izan zan eta orrelan artu eban Lendakariak.

Urrengo, artzen doguzan diru-laguntzen urritasuna aztertu zan. Diru-laguntza ori bearrezko gauza lez agertu zan, bai egiten diran lanak babesteko eta bai era-kundearen aurrerabidean, bere bizitzan, izaten diran bear-izanai erantzuteko. Zalantza barik, artzen doguzan laguntzak oso urriak zirala eta beste Erakunde batzuk ar-tzen dabezenen parean oso laburrak zirala argi agertu zan.

## Erantzuna

Arretaz eta gogotsu entzun ebazan Lendakariak gure pozak eta kezkek eta tarteka argibideak eskatu eta galde-rak egin be bai.

Gero bere erantzuna emon eban eta erantzun orretan agertzen diran atal batzuk oneik dira: Euskerearen ardu-rea benetan artzen dauala Jaurlearitzak, euskera-arloan nabari dan banakuntza tamalgarria dala, indarra ugari-tzeko eta lanak ez bikoizteko bateratzea bear zala, euske-rearen alde egiten diran lanai laguntza emoteko gertu dagozala eta emon be egiten dala laguntza ori, orreta-rako bear dan sasoian laguntza-eskariak egiteko, eta abar.

Onelako idaz-lan labur baten ezin zeatz aitatu eran-tzun orretan erabillitako gai guztiak, baiña bai argi ge-ratu zala arlo onetan Jaurlearitzak dauan ardurea eta la-guntza emoteko guraria eta gure aldetik, orain-artean baiño itxaropentsuago izateko oiñarria.

## ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK

J.A. **ARDANTZA** LENDAKARIARI

Agur jauna:

"Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkarte'koak, Erri Euzkera, Euzkera Jatorra aldeztu, eutsi nayeian aukezten gataizkizu.

Euzkera, EUZKERA aldezteko ditugun zioak agertuaz, emen doakizu, arazo onetaz - Euzkera arazoaz alegia- azalpen laburra.

Adierazpen ontan, jakintsu, ikastunen iritziak azaltzen dizkizugu. (Euzkera arazoaz noski). Ba'dira tartean, oraingo gure iri-tziakin zearo bat ez datozenak, baiña, ala ere, gure adierazpen asko bayezten dituztenak.

Aurrerantz ere, Euzkera'ri buruz ditugun kezkek adieraziko dizkizugu, guzior artean, "Euzkera bai, baiña Euzkalki-Euzkera jatorra", gure esaldia egi biurtu dezagun.

Gai ontaz bear dituzuten argi-bide guziak emateko gertu gaituzute.

"Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkarte'koen begirunez

Arzelus Arrieta'tar Amale  
Lendakaria'k

## ONARTU TA AINTZATU!

Mariana edeslariak gure euskereari Bizkai'tarren izkuntza okerra esaten dautso, baiña munduko ia izkuntza guztien jakintzaille zan Humboldt jermanarrak euskereari buruz beste au esan eban: Izkuntza erritarra ta bizia, garbia ta gozoa, ago-ederra eta munduko izkuntza guztien artean bardin-bakoa zala.

1800n.urtean, Peru Abarka idaztiaren idazlea zan Mogel'ek España'ren kondaira ta lutelestia euskera izkuntza jakin ezkeru obeto argitzen eta irakasten dala agertu eban.

Gure Mogel'entzat eta bere aldiko beste askorentzat, euskerea izan zan gu bizi garan Erdi-Ugarte onetan aldi baten izan ziran biztanle guztien izkuntza eta lur-arlo onetan agertzen diran toki-izen askok dabe euskal-sustrai. Orrez gainera euskaldunak erlejiño-arazoetan benetako erlejiñoaren begirunea izan eben eta berrerosele dogun Jesus Salbatzaillea etorri baiño lenago ezagutzen eben benetako Jainkoa, sasi-jainkorik inoz gurtu barik, eta orregaitik euren biotzak ondo gertautu egozan Barri Ona artzeko.

Traggia eritxon idazle batek urten eban Mogel'ek euskereari buruz agertu ebazan eritxi onein aurka. Erantzun oneik urte askotan irauan eben erdi-jakin barik eta euskaldun askorentzat jakin barik be igaro ziran.

Astarloa'tar Pedro Pablo Durangoarrak, 1752 urtean jaioa berau, iztegi bat argitaratu eban eta bere "Apolo-gia"ren itz-aurrean Traggia'k esandakoai erantzuna emoten dautse, orretarako eskaria Madrid'en bizi ziran euskaldunak egin ondoren. Euskaldun oneik Traggia'k esanakaitik oso asarre agertu jakozan Astarloa'ri eta erantzun bat idatzi egiala eskatu eutsoen. Ori izan zan berak Euskerearen "Apolojia" edo gorlpena idazteko zioa.

Liburu onetan Astarloa'k- Traggia'ren esaera zentzunbakoak ukatu eta ezabatu ebazan eta euskereak beste izkuntza guztien artean eukan edertasuna agertzen alegindu zan: "Izkuntza ezin-obeia, oso-osea, egitamu bardin-bakoa dauana, bere aozkatzean asierako munduaren margoa agertzen dauana, munduko lenengo izkuntza, jakintza aundia eukan erri batek erabili bear eban izkuntza".

Astarloa'ren liburuak durundu aundia izan eban. Ara zer esan eban Godoy'k bere idazti baten: "Astarloa'tar Pablo Pedro'k, euskaldunen izkuntzari buruz aztertzaile ta jakin-zale dan saio bat argitaratu dau, lan sarigarria eta jakituri luze ta zabala agertzen dauana".

Liburuaren egillea zan Astarloa berak Jaunerriko Aldundira bialdu eban liburua eta Aldundiak 1803 urtean, dagonillaren 20'an egindako batzarrean, liburuaren ale batzuk eskatzea erabagi eban.

Olako gauzak entzunda, guk, geure izkuntza darabilgun euskaldunok, zelako ondorenak atera bear doguz? Eta zer egin bear dogu izkuntza au aldezteko, indartzeko, zabaltzeko?

Lenengo, eta batez be, gure izkuntza au pozik erabili berbaz ekiten dogunean, eta ondo jantzita erabilten alegindu. Lotsatu egin bear gintzakez "une" esan bear dogunean "momentu" esaten dogulako, edo "oinkada"ren orde "pausu", edo "ederra"ren orde "elegantea", edo "errua"ren orde kulpia. Eta H izkia zer da gutzat? Erde-arearen zikinker bat, ez besterik. Gure euskera ederra gaxago biurtzen daskun ostopo bat. Ba-dira or euskaldun batzuk erderazko "comunidad" berbea esateko "amankomuna" erabilten dabenak be.

LETONA'k

IRAKURLE: 1. ZER'eri DAGOKION URTEKO SARIA ORDAINDU EZ BA'DOZU, BIALDU EGIZU "TXEKE" BAT "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"REN IZENA EZARRITA COLON DE LARREATEGI 14, 2. <sup>a</sup>ra. 1.200 PEZETA DIRA. ESKERRIK ASKO!  
2. IDAZTEN BA-DAKIZU, IDATZI, LANAK URRI DATORKUZ-ETA. ESKERRAK BARRIRO.

ZUZENDARITZAK

---

# ARBASOEN IZKUNTZA - ZALEAK

---

"ARBASOEN - IZKUNTZA - ZALEAK", "ELKARTEEN, ERROLDE NAGUSIA"n ezarria izan da, G/1249/88 zenbakiz.

Elkarte au zertarako sortu dan, "Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" izenak argi adierazten du noski. Elburuak, Araudia'k, 2gn. Atalean, bereiziki, azaltzen denez, auek'dira:

A - Erri Euzkera ikasi, bizkortu ta zabaldu, Errialde bakoitzean bere euzkalkia eta Euzkadi osorako danean, Azkue'ren "Gipuzkera osotua". (Au, batasunar-en **egin-gaia** izan zan.)

B - Arana Goiri'tar Sabin'ek egin ta gero Azkue jaunak onartu ta bizkortu zun idazkera izango da gurea.

C - Erriko "EUSKERAZAINTZA", Jakitun Batzararak ditun arauetan oñarrituko da ta aurrera ere, sorburua uzten ez dun artean.

D - Gure bidea dun edozein Erakunde'rekin ar-emanaz izan nai genuke.

Aitatutako elburuak irixteko, ekintza auek ditugu asmoan:

- A) ITZALDIAK
- B) AR-EMAN BIDEAI (izparringi, irrati e.a.) IDAZLANAK BIALI.
- C) BAZKIDEENTZAT, ADIERAZPEN IDAZKIA.

Adierazitakoakin, Elkartea'ren asmoak argi ageri diran arren, euzkalkiak landu eta zabaltzen aleginduko gerala, berriro esan nai degu; au bai da, gure iritziz, EUZKERA jatorraren iturria.

Zeaztasun geiago nai izan azkero, 167 Bidal-tokira idatzi, ala (943) 297130 urrutizkiñera deitu.

### Gure Elkartea'ren sorrera

Azken urte auetan, billerak, elkar-izketak, euzkeltzale jakitunakin izketaldiak izan ondoren, Euzkera jatorra EUZKERA aldezteko, lantzeko, zabaltzeko, Elkartea sortu bearra ikusi genun. Onela ba, 1981ngo. Uztailla'k 24'an sortu zan "Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkartea.

Guk eragin nai degun Euzkera aldezten duten beste Erakundeak ba ditugu, baiña auek beren eginbear berezia dute: "Euskerazaintza" (Erri Akademia) -"Kardaberaz Bazkuna" (Euzkal idazleak) "Euskerazaleak" (Euzkera lantzeko).

Elkartea 1988ngo. Azilla'k 11'n izan zan legeztatua.

Euzkera ikasi, erabili, pizkortzea da gure Elkartea'ren elburua Arana Goiri'tar Sabin'ek, 1896'garreanean eman zigun bidea jarraituaz.

### 1896 artu degu gure lanaren asierako

"Historia General del Señorío de Bizcaya" idaztarian, Labayru eta Goikoetxea'tar Estanislao'k onela dio:

"Ulertezizko izkutuaz inguraturik bizi da euzkaldunen izkuntza, eta bere sorburua laño sakonak estaltzen dute, baita beren enda ere.

Euzkera idatzia oso berandu arte ez da azaltzen: VXI'gn. mendea baiño len ez da euzkal idatzirik ageri. 564'ng. urtean, Andramendi jauregiko, Iburguren'en idatz zatiak gezurrezkoak dira eta baita Cachopin'ek aitatzen ditun "manuscritos vascos" diralakoak ere.

Euzkaldunak itzez egiten zuten guzia eta ez zituzten beren gertakizun, itune, erabaki, itzarmen eta ageriak idatzi, Auñamendi txokoan bildu ziranetik beñepein.

Gizartez gizarte, gurasoengandik seme alabak jasoaz, iraun ere azi zituzten esaera-zar, abesti eta baita oituzko legedia ere.

Geroztik euzkal idazleak izan dira noski, baiña aurrelariak izatea gaiñera (amentzat lana askoz ere zailagoa dala argi dago), onetzaz gaiñera ba, ikasketak erdel izkuntzetan egin zituzten eta idazterakoan aien indarra nabari zuten. Onekin ez degu, iñola ere, gauza on asko egin zituzte ukatu nai; au argi gelditu dedilla.

Arana Goiri'tar Sabin'ek, bere lan guzia, Euzkera'ren erroetan sustraituta egin zun, erdera kutsua (aspalditik sartua, tamalez) kenduaz. Onegaitik asi degu gure adierazpena 1896'gn. urtea ezkero.

Orain zoritxarrez itz jatorrak galtzen ari dira eta auen orde, ingureatako izkuntzetatik artutakoaz, ito bearrean degu gure izkuntza gaixoa.

Ona euren, Iakakortaxarena'tar Txomin jaunak emandako adibide batzuek:

"Urdaila - birrikak - urratxa - zeia - bidebarria - idazkarigoa... auen orde beste auek erabilliaz: estomagoa - pulmoiak - pausoa - plaza - karretera - bulegoa e.a. Erria, euzkera "mordollo" orrekin, ainbesteraño oitu da, itz garbiak erabiltzeak lotsatu egiten du eta azkenean zear aaztu."

## AITA LINO, EUSKEREAREN IRAKASLE



Ni, gure ZER illeroko Aldizkari onen irakurleen otsein apal nazan au, Orozko-Ibarra'ko Atxetako euskotar eta euskaldun izanez, iru urtetan gure bizkaiera ikasi ondoren, euskal izkuntzarako zaletasuna itzita, beste zeregin batzutara sartu nintzan, goimaillako zeregiñak ziralako. Gaztaroko indar zoli ta bizkorren zati bat, atzerrian eralgi bear izan neban. Nire nagusia, Bilbo'ra, Duestu'ra etorteko esan eustenean ba-nebazan 60 urte. Ona etorri ondoren, euskerearen alde lan egin bear nebala ikusirik, Euskaltzaindian atera neban irakasle-agiria. Orduan Bilbo'n argitaratzen zan AGUR aldizkarian idazten neban eta egunero arratsaldeetan irakastaldiak emoten nebazan. Igandeetan Bilbo'ko Gotzain-Eleizan dan parrokian apostolu-lana egiten nebala, emengo txanburuak, nik euskeraz idazten nekiala jakiñik, Igandeetako mezetan egiten diran irakurgaien laburpena idazteko eskatu eustan.

Egia esateko, ez neban uste ainbeste lan egiteko gai nintzanik, baiña orduantxe etorri jatan burura Akesolo'tar Lino nire lagun onak orraztu leikeazala nire Idazteun-adierazpenak. Ori izan zan nire ametsa eta orixe egin neban: Bederatzi urtetan liturjiko irakurgaiak idazten Aita Lino'ren ikasle izan nintzan.

Gero azalpen orrean bilduma egin eta argitaraeu nai izan neban, baiña zelan? Nondik lortu ori egiteko dirua? Gure Aldundegi aberatsak, jakiña, dirua parra-parra darabil... baiña bai zera... entzute bako lekaide txiki bategaitik diarua eralgi? Zalantza oneik izan arren lagun batzuk esan eusten ez nebala ezer galduko Aldundegi'ko Kultura-Saillaren zuzendaria dan Uribe-Etxebarria jaunari eskakizun egoki bat egiteagaz.

LETONA'k

### IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guttietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, **oiñarri-arauak** oneik dirala:

– **Ipuiñak** euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz **idatziak** izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmaurikoak edo errian **batuak** izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en **argitaratuko** dira. Saririk irabazten ez **dabena** be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.<sup>a</sup>, eskotia) **egon bear** dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita **DEIA Egunkarian** be al bait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.<sup>a</sup> 40.000 pezeta
- 2.<sup>a</sup> 30.000 pezeta
- 3.<sup>a</sup> 20.000 pezeta
- 4.<sup>a</sup> 10.000 pezeta

— Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten **barruan** izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

---

---

## ON JOXE MARI'REN ASIERA ARRASATE'N

---

---

Abade ori Arrasate'ra eldu zan'1941'ko, Otsaillaren bostean. Arin konturatu zan bertako jentea, ona ta gogorra zala lan-kontuan, baiña, osotu barik egoazala langilleak, LANA egiten ebela DRINGILI-DRANGALA, burdin zarrak zarata egiten dauen bezela, bai BERBETAN eta bai LANEAN.

Giro onetan zer egin leike emen? Arin, gure Abadeak, artu eban ERABAGI sendoa eta ZUZENA. Gizon areik landu eta lizotu egin bear zirala, eurai lagundu.

Baiña, noztik? Txiki-txikitatik asita.

Orduan gauza guztien aurretik, berak ekarri ebezan ASMO SENDOAK, sakonak ta IKASGARRIAK, EKINTZA BIURTU BEAR ZIRAN.

Ona ekarriko dodaz bere jenteari lenengotatik ipiñi eutsosan GOGAPENAK.

### **ESAERA SAKONAK ETA IKASGARRIAK**

BAZKUNDEAN edo Kooperatiban, egiten ez badogu lana, beti ibilliko gara BORROKAN, bata bestearen aurka, eta gauza ONIK ez dogu egingo.

BAZKUNDEAN eta Errilegean, Demokrazia bizitzeko, jentek EZITA egon bear dau. Alkartasuna, lankidetasuna, askatasuna eta ANTOLABIDEA, edo autsi-mautsia. lau gauza oneik, bear bearrezkoak dirala, INDARRA ta BORONDATEA alkartzeko.

Errilegea, kideetasuna eta Eginkorra dan indarriztiari laguntzeko ta aurrera eroateko lan aundiak egin bear dirala.

LANKIDEGO baten, danak Arduradunak izan bear dabe eta gauza guztietan Bazkun baten guztiak dira NAGUSIAK eta LANGILLEAK.

An ez dau ALPERRA izateak balio, bere KALTERAKO dalako alpertasun ori.

Ez dago GIZON guztiz DEUSEZTURIK txarto erabillita baiño.

Ez dago zerbait gauza onen bat ez daukan gizon txarrik.

Ez da ARROKERIA aske izatea, beartasuna eta eginbearra baiño.

Edonun, GIZONA GIZONDU barik ez dago zer egiterik edo gauza ona egingo dauenik Gizona osotu, ezi ta obeagotu egin bear da.



IKASI TA LANA EGIN GIZON TREBEAK ETA ELDUAK IZATEKO

# EUSKALDUNAK

Errilegeak izan bear dau gure Gizartea noreka edo DENDURA eroateko.

Gizon batek bere zer-egina betetzeko nagusi bat bere ondoan bear ba dau, ori ABERE bat dala esan geinke, baiña, beartasun ori alboan itxiten ba'dau, orduan biurtzen da GIZON ON BAT bezelakoa edo berezia.

Norbaitek esan dau: GIZON EL DUA DALA, ametsak joan ondoren, EUTSITEN dautsona, ori dala gizon EL DUA.

## IKASTETXE BARRIA

Aurreko esaera onek gure GAZTEDIAREN belarrietan eta agoetan ipiñi ondoren, IRU URTE baiño lenago asi zan, bere Ametsak betetzen Berak esaten eutsen sarritan, entzun gura eben guztiai, kalean, etxean, edonun, ON BIDE ONEAN, ipinten ez badogu emengo GAZTEDIA ez dogula ezertxo be egingo iñoiz gauza onik, eta iñoiz ez gara, jarriko ON BIDE BATEN.

Iru urte baiño lenago, asi zan egiten "ARRASATE'KO LAN-IKALEEN IKASTEGIA". Orduan ikusi eban jente guztiak, bide ori ONA zala, Ortik etorriko zala gure langillean ONDASUNA.

Arrasateko jenteak ori ikasita eukan, ango OLARIK onena zan CERRAJERA DE MONDRAGON'ek lenagoko Ikastetxe lanerako on bat eukalako, eta jenteak baekian zelako FRUTOAK emoten ebezan.

Beste arazorik EZ ZAN entzuten gurasoen artean, jente guztien ALKARTZE eta tabernetan, edonun.

Ikastetxeko, lenengo ikasleak ikastetxe barrian, jota ta kee egiten ei eben, ta poz aundia emoten eutsien gurasoai gazteak. 1944 urtean, neuk bialdu nebezan SEI mutiko, amalau urtekoak azterketa egin, eta bertara sartzeko. Azterketa egiteko billatu ziran bai Mondragonekoak, Aretxabaletakoak, Ezkoriazakoak, Aramaiokoak ta bateron bat Oñatikoa.

Guztiak jokatu eben ALKARREN LEIAN, zein ohea izateko, urratz onagaz ikastetxe BARRIRA sartzeko, antz onean.

Nik bialdu nebazan, sei orreitatik IRU irten eben, AU RRERAKOAK.

Ori ikusi ebenean Artxabaletako gurasoak, besterik ez eukien euren espanetan: Nire SEMEA gertatu eizu, datoren urteko irailerako, bertan sartzeko.

On Joxe Marik, bere inguruan, laguntazille bezela, ipiñi ebezan LORTU AL IZAN EBAZAN IRAKASLERIK onenak, ta berak antolatu edo AUKERATU ebazan ondo EZITA egoazan Maixurik onenatarikoak.

Bere IDAZKARI bezela ipiñi eban Marianista izandako bat, mutil langillea, zuzena ta barru onekoa ta onelan laister MAIXOTU edo nagusitu eta aurrenengo jarri zan, inguru guztian.

Bertan ez bakarrik. Emen Bizkaian, MUZKIZEN, beste abade MUNGITAR BATEK ipiñi eban olako IKASTETXE BAT. Mungiako abadearen laguntzaille onenatarikoa izan zan neuk ezagutzen doten Maixu zintzoenetaiko bat, Jesus Llanos. Au egon zan 28 urte, azkenak jo arte, orduan itzi eban lanpostu ori.

Mungiako abade ori sarritan joaten zan jakiten, zelan JOIAN Mondragonkoa, eta onen antzera berak be jokutzen eban.

Orain, Muzkizkoa, bere inguruan, beste ESKOLA adibeza onenatarikoa da. Inguru guztiko ikasleak Sestao, Portugalete, Santurtzi, Barakaldo, eta beste aldetik be bai, joaten dira bertara, ikasketak egiteko, LANGILLE bereziak izateko. Ortik datorrelako ONDASUNA. Esan geinke, zalantza aundi barik, Muzkizko langilleen Ikastetxe balioitsu ori, Mondragon'eko ARKUMEA dala.

## BESTE IKASTETXE BARRI BAT

On Joxe Marik, ikusi ebanean lantegiko ikastetxea ori ondo yoyala, beste bat sortutea asmau izan eban, eta ez zan atzera gelditu. Seitik amalau urterañoko mutikoentzat izango zan.

Ezkoariatzako lurretan, etxe zar bat egoan tokian, Aretxabaleta eta Ezkoriazta mugan, bota lurrera, leengo etxe ori eta, bertan apur bat gorago, mendi koskor baten, jaso zan ikastetxe ori. BARRI BAT. Berezkoa dan bezela ipiñi eban lenegotik zuzendari bezela Marianista bat, asko jakia, geiago ikusia, ta begirune aundikoa, ta emen ere guzak ondo baiño obeto doaz... Leniz'ko gurazo guztiak oso pozik dagoz ta jente edo mutiko geienak, ona doaz. Nik entzun doten bezela jentea oso pozik dago, ta jentea olako toki bateko Maixuei laguntzeko modurik onenetan dago.

Emen gertatzen ei dira, KOU egiteko, LAN-IKASTEGI RORA joateko eta abar. Gauza aundia da gurasoak olako toki bat eukitea, euren seme-alabak nai dabena ikasteko, etxeurrean.



## **EMEN EZ ZIRAN GURE ABADÉAREN AMETSAK AMAITU**

Ondiño beste ikastexe be barri bat, sortu eban Ezkoria-tza'n bertan. Au izan zan EUSKALDUN IZKUNTZA irakasteko MAIXU TA MAISTRA bereziak irten daitezcan.

Orbe ERAKUNTZA oneneitarikoak emonda, aurkitzen da, ikastetxe barri ori. Orain irteten ei dira, edonora bialtzeko, euskal eskoletara bialtzeko, baiña ERAKUNDE edo egikera on-on bat emon ondoren, ori da garrantzi-tzuen= ERAKUNTZA ona emateko, ori barik ez dago zer egiñik. Orretarako iru urte baiño geiagotan egoten ei dira, edozein modulan ez urteteko.

## **JOXE MARIEN ASKEN-NAIA**

On Joxe Mari Arrasate'ra etorri zanetik Betikotasunera joan arte ogeitamabots urte igaro ziran, osta-osta.

Denbora LABUR aldi onetan, bai LAN izugarria eginda gero, joan zan, denbora gitxian, BASTERRALDE ori, ipiñi eban GUZTIZ ALDATUTA.

Ez bakarrik aldatuta, ONBIDE ON BATEN ondo ipiñita basterralde guztia. Gatzaga'ko lurretatik, San Prudentziko guztiak Lenizko ibar guztia, neretzat guztiz aldatuta.

Lurralde ortan bizi dira Berrogeitamabost milla BIZI LAGUN inguru eta esan geinke guztiak bizi dirala ONDO, baiño obeto, KRISISIK gabe, beintzat aundirik gabe eta POZIK.

ZERGAITIK? Abade orrek ipiñi edo gertatu deutse-lako bizimodu ederra. Lenago Arrasateko langilleak, nire aur-sasoian, garbi joaten ziran lanera, baiña biurten ziran moroak bezela, arpegi loiaz, jantziak zeresanik ez, olako jentea ikustea, nire txiki denboran, moroak ikustea zan. iñon aurrera agertu ezinda.

Orain beste GIZARTE bat dagola ezan geinke, TRIN-GILI-TRANGALA guztiak, alde batera itxita, beste GIRO bat aurkitzen da jenteen artean.

Ara noan guztietan, neuk ikusi dodaz, bai baserrietan ta zer esanik ez kalean, askoz obeto bizi dirala, argi ta garbi ta pozik. Eurak esaten dabe: Lenago baiño LAN oso gitxiago eginda, baiña askoz obeto bizi dirala, kaletik edo lantokietatik ekarten dabezcan TXANPON ederrakin, jakina, baserrietarak baserrian bizi diranak zerbait edo apur bat LAGUNDUTA. Lagundu barik ez dago ONDUTERIK.

Iñok ez dau esango ITZ txarririk On Joxemariagaitik.

Bera joan zan bestaldera edo Betikotasunera, Leniz'tarrei auxe esanaz:

"Leniz'tarrak: Lan egizue, ta ondo baiño obeto biziko zarie. BIDE EZIN BAIÑO OBEAN, ipiñi zaituek, jarraitu egiozue bide orrerik".

Berak esaten eban esaera baten auxe:

Zuen OSASUNA, LANA ta ESKUAK izango dira zuen ABERASTASUNA.

Onelan ABERATSAK izan zeikie, gizon zintzoak izaten ba'zarie".

Neure LOBAK, sarritan, obeto esanda, ara noan bakoi-txean esaten dauste: Gu emen oso ondo, ederto bizi gara, kaletik ekarten dauskuezan txanponakin ta gure laguntasunagaz, zeruan bezela bizi gara. Orrelan jente gitxi eta LURRALDE gitxi bizi dira. Zergaitik?

Toki batzuetan lanik gabe dagozelako eta beste batzuk janik ez daukelako.

Lanak eta lan egiteko GOGUAK ekarri bear dau Aberastasuna.

Ikusi besterik ez daukagu gure inguruan eta Alemanian Nire bizitza denboran KIÑA jota gelditu da BIRRITAN, austuta, lurra jota. Ikusi besterik ez dago zelan eurkitzen zan aldi bietan: Amar urte baiño lenago euren BURUA, al-tzau eben danen ganetik, Zergaitik: LANEAN ONDO EGITEN DAKIELAKO ETA GIZON JAKINTSUAK DIRALAKO.

Beste ainbeste jazo da JAPON'en. Oneik ere AUSTUTA gelditu ondoren lanaren bitartez jaso dabe euren burua GORENGO MAILLERA. Begiratu zelan aurkitzen diran. Ez dago iñor azpiratuko dauzanik.

Nire Loba batek, iru bider bertan egon ondoren esaten daust: Japonesak joaten ei dira IRRIBARREKA lanera, pozik, eta orrelan norberen zer-egiña artu ezker, DERRIGOR LANA ONDO EGIN BEAR.

LAN berezia egiteko pozik joan bear da LANTOKIRA.

OR DAUKAGUZ GURE JOXE MARIEN, ASKEN--NAIAK

ETXEBERRI'tar ISIDOR.

---

# SEGOVIA'N BEBAI

---

Lurralde oneitatik be, gure asabak sarri samar ibilliak dira. Zertan baiña? Ez gero artzaintzan, batzuk lez etxe eta monumentu dotere-gintzan baiño. Or ingururuetakoa ereiki eta oroigalluetan ainbat euskaldunen abizenak agiri dira. Gure artistak araiño eldu oi ziran euren tresna fiñakaz. Ango "Alcazar" aldean be bai ete?

Dana dala, gu be Segovia'n izan gintzazan, aurten, iraillaren 14'n; asmo bikain batek eraginda ain zuzen be: Aurten, Ubeda'n illa izan arren, ementxe dago bere gorputza mausoleo eder baten, ea lareun urtetik egon be, eta aurten urteurrena, ara joatea izan zan irurogei baten griña bizie, eta goiz baten tarranta eroso ta kantari baten altzoen gintzazan eguna kiñuz asi aurretik.

Goiz-samar izanik be iñor etzan logura. Bai ostera kantari, eta ipuinlari. Gasteiz eta Burgos; emen zeozer artu gura, baiña itxita oraindik jatetxeak: bien bitartean batzuk kalea'n eta beste batzuk katedrala ikuskatu genduzan; katedrala guztioi eder-ederra iduritu jakun, arte utsez betea. Gorputzari be zerbait emonik, aurrera ordu batean lez, Palencia, Valladolid... Segovia; bide legorralauna eta beroa benetan. Eta or, azkenez, gure uria; ortik eta emendik apurtutako lapiko baten sartua; ez aundia, baiña bai eder-galanta, orain eta erromarren aldietan.

Gutziz gaiñetik gure asmoa Juan Gurutzekoaren eleizan mezea esan eta otoitz egitea zan, eta orrelaxe egin genduan. Lau bat ezkontza ospatu ziran arren, alboko kapillan, guri Santuaren eleizea itxi euskuen geure meza eta erreguak nasai-nasai betetako. Lau gizaldi emen daroazan illobia, beste zer guztiakaz ondo begiztatu ondoren, asiera emon geuntsan mezeari, euskeraz oso-osorik, geure eleizetan letxe, guztion artean bizi-bizi abesturik.

Nik oitura dadanez, eleiza, ermita naiz kapilla, olako egun garrantzitsuetan, beti oguzi daroadaz lau barba meza bitartean; orrela egin neban karmeldar eleiza ospetsu onetan be. Arantza giñoiazala erromes batzuk eska etorri jatazan Juan Gurutzeakoaren zer batzuk azaltzea egoki litzakela esanez. Atsegin izan jatan eskari au. Eta Ebanjelio ostean luze samar, adi be adi entzun eustenai azaldu neutsezan aren bizitza ta idaztietatik, gairik jakin-garrienak beñik-bein.

Bidean be, liburu billoa banandu neutsen, "Bizitza" eta abar, gauzea pizkat girotu nairik, eta nire berbak etzi-

ran arri-arteon jausi. Zertxobait beintzat, Santuaren liburuetatik "Igoera", "Gau illuna", "Maite-kanta" eta "Maite sugar bizia" azaltzen alegindu nintzan, kanta batzuk be adierazorik. Guzti onek zoragarriri durundu toki barne aretan; eta guzti au kantuz gozatua, geure ez-tarri ta biotzak dardar.

Jaunartze ostean bakotzak bere eskaria. Izan be, iñoiz sartu etzarean eleiza baten sartzerakoan eskatu egizu mesede berezi bat eta santu orrek emongo dautzu eskatzen dautzun mesedea. Orrela guri eskatu geuntsona be; ainbeste doe egiñak, zelan guri ez? Jaunartu, azken-otoitzak osotu, Santuaren altarea, irudia andik eta emendik miretsi, begitu eta pa gozoak urtekeran be bialduz, bizi-ero agertu genduan otoitzegi kiskalia. Bat, eleizateetan zear onela joian kantari:

"Lore ta pitxi guriz  
—goizalde otzean biok batuta-  
egingo dogu txorta,  
zeure maite-suz gara,  
ene ule batekin alkar eiota".

Orma barruan komentua, zatirik gitxi ez Juan Gurutzekoaren egunetakoa; bakartade atsegiña, sakon-une bipilla beian eta Katedrala ta Gaztelua aurrez-aurre goian; inguruan ezker-eskuma ainbat komentu, angota emengo.

Geiegi luzatu barik, 61'ok "Acueducto" jatetxera jo gendun, uri ontako eta inguruetakoa tokiak eta arte-eder-tasunak ikusteko asmoz. Eta onezkero esan daigun zer jan genduan, gorputz eta arima garaenez, gorputzari arimari lez eskiñi bear jako. Zer jan genduan? Aurretik itundua genduana: gaztelar zukua lenengo, potintxo luzanga errai-zapal batean; txarri errea gero, gure janaria etzala-ta, lenengotan muzin egin arren, guztiok gustora, azurrak be ondo zurrupata itxirik; bazkaldar guztiak ederra iruditu jakun gaztelar jateko berezi au. Ez jatekoz, ez edatekoz iñor etzan urri geratu.

Gure erromesak ondoren —nik aurretik be ikusiak nebazan— Katedrala eta "Alkazarra" batez be ikusi nai izan ebezan, eta Ur-bide ondolik zear orretan saiatu ziran. Gure asmotan egoen "La Granja" deritxona ikustea, eta goi-aldeak ikusiaz arako bidean jarri giñan; uritik 10

kilometrora lez aurkitzen da Guadarrama-azpian. Antxiña, gero Aranjuez bezela, espaiñar erregeen udako atsedeen-lekua izan zan, leku eder baketsua; bertako etxeak baiño geiago ango baratzetako zugatzak antxiñekosun aparta darakuse. Etxe berezietan bananduta, ainbat eta ainbat bitxi, oroigallu eta gauza begiragarri ikusi genduzan. Erakuslea nagi-samar ebillen eta ez gintzazan gauza guztiak geuk nai baizen zeatz miresteraiño eldu. Toki au bitxia da, etxe eta jauregi apaín, ía egunero eta egunetan zabalik daukazu.

Segovia'tik, etxerakoan, bidea astun samarra begitandu jakula be, egunak emon euskuna jorratuz eta guztiz kantari, labur egin jakun guztioi Segovia'tik Aranda'rako etorria; kantu, itz zorrotz eta ipuin alai, neke barik gentozan. Begi —aurrean joakun ederto berotu eban eguzkia, lastertxo, urriñera, laiño me-gorritzka artean ostendurik gaba zan beingoan. Dizdiz bizian Burgos inguruko argiak.

Apari-izkirako sasoia be gaiñ zala-ta, Bibrieska'n, autopistako restaurantean gelditu giñan, bakotxak nai ebena artzeko. Giro bikaiñaren altzoan ba-zan an be umore onik naiko; danok inogun zerbait eguneko gertakizun, biozkada eta olakoren bat aitatzuz: umore ona ta zer-esana barnan beti dozu jitaren emona, zer osasuntsua. Baita artu dana ordaintzeko agertu oi dan gurari trebea.

Miranda atzera itxi eta oíndiño be urretxindor-gisa jentea kantuz. Pobes' era eldukeran, Andra Mari-zale batek, oi: "Egoki litzakigu, azkenerako itxi barik, Erro-saioa errezetea", eta nik bat-batean: "Gurutze Santuaren". Au biotz bero, esan ondoren, ez "Agur Erregiña bakarrik, baiña dozena bat eleiz-abesti be abots gozo ta sentikorrez dardaratu genduzan; txoriak bakotxak bere neurrian abestu oi dau, era berean emen be.

Zornotza'ra eldu giñanean, aurre aldean geunkan illargia, zeru-goi zear. Aren antzera gu be. Urrin dagoala Segovia? Gu ez ginduzan muskildu urrintasunak, ez gintzazan kikildu; asmo jainkozko batek eraginda joan giñan ara, egun zoragarria igaro genduen danok.

Omen eder bat eskiñi geuntson karmeldar santu gartsuari; adimenerako argia eta biotzerako sugar bizia eskatu geuntsozan danok eta banaka. Eta zintzoen eskari beroa beti entzun oi dabe santuak.

Errian, onek an eta besteak emen geratu dira, etxe-koak zain ikustean. Ni komenturantz, eta ondoren etorkidan batek, Juan Gurutzekoaren olerki pinpirin bat irakurri bear eustala-ta, gelditu ninduan bidean, bertso-estrofa au irakurriz:

"Bai, or-an dabiltzanak  
milla zoragarri Zutaz diñostez,  
danak zauritzen, nago  
ta il-urren naukie,  
itz-erdizko esan-ezin motelez".

Egun guztiak ez dira bardiñak, baiña batzuk bai zoragarriak!

AITA ONAINDIA

### OLERTI - EGUNA, 1991

Aurrekoari jarraituz eta urte-mordoari ekiñik, aurtan be Olerti - Eguna ospatuko dogu emen Larearen, Kristo Errege egunez, au da, Azaroaren 24'an. Asi lanak bialtzen. Gaiak eta abar, beste urteetan lez:

LIRIKA SAILLA: Edozein gai, euskera gozo jatorrean.

**POEMA** bat beti lez; geure arloak gai dirala, obeto.

Bertsolari-gaizko mordo sotil bat.

**Kristo Erregez**, amaika eta erdietan, meza abes-tua, itzaldi ta guzti. Ondoren sari banaketa, olerki-irakurta eta poesiari buruzko alkar izketa.

Ordu bi t'erdietan, bazkaria.

**Oarra:** Merezi daben olerki guztiak argitalduko dira.

AITA ONAINDIA

---

# BERRIO-OTXOA (ETABI)

---

Toledo aldean erri bat dago  
gutziz da entzutetsua  
Okaña bere izena  
antxen dagola antxiñetatik  
Domekarren Konbentua.  
Domekatarren ezi lekua  
edo nobiziadua.  
Or egon pozik gure Balendin  
amesez inguratua  
Logroñon legez ta bizi guztin  
Jaungoiko zale zintzua...  
Abade ona ara eldu zan  
orain lekaide santua  
bere bidea artez daroa  
len erabagi artua.  
Poz pozik dagoz domekatarrak  
artu dabe ba bitxi bat barri bat  
benetan eder ederra  
alakok ez da beste bat  
Urte betean bere barruan  
astertu ditu legeak,  
bai eta josi bere biotzan  
erakutsi txit santuak.  
Urte igaro ordua eldu  
egin bear dauz ezkontzak  
nagusi danak ao bategaz,  
ontzat artua izanda  
egingo ditu zintzo bai zintzo  
lekaidearen ezkontzak.  
Gerturik dago oso osoan  
gure Balendin maitea  
ziur nago ni izango dala  
mixiolari trebea.  
Bera dagola pozarren pozez  
urrutira joateko  
arima asko sorkalden urrun  
Jainkoari ezkeintzeko.

### MIXIOETARA

Bere lagunai agur egiñik  
ba-doa itsas poztura,  
itsas ontzian arin sarturik  
ibillaldi urrunera  
Utsune aundi beraz itxi dau  
Okaña'ko konbentuan  
urte betean bertan egonik  
guztien zan biotzean  
Olako gizon jaungoikozkoa  
etzan errez aurkitzea  
danen eredu izan zalako  
igarotako urtean  
Kadiz'en sartu Manilaraiño  
zala itsaso luzea  
bere buruan guraribat da  
zenbat ariñen eltzea,  
Manilan gero geldi une bat  
izkuntza zailla ikasten  
angon artean askar bai askar

\_n ber da lenen lenen  
Bere . 'a sutan dagola  
Tonkin aldera joateko  
antxepoz-pozik bere bizi eskeintzeko  
Ames bat bakar ango egunetan  
siñisbageak Jaunagandu  
ori dala bakar bakarrik  
ori da bere elburu  
Antxe bere da eredu onaz  
dan danak dagoz poz pozik  
ezdogu iñoiz emen ikusi  
olako praille santurik.

### BERE MIXIO LURREAN

Gerturik dago gure gizona  
gorputzez eta arima  
berak nai eban mixioetan  
lan egiteko Jaunagaz  
Tonkin'go lurra Indotxiñan zan  
orain deitua Bietnam  
Ori da solo maite maitia  
bertan eiteko pozez lan  
Adoreagaz artu dau arlo  
an ereiteko fedea  
antxe dau arlo gogor aundia  
lan egiteko erea.  
Adoreagaz artu dau lana  
beregaz gau egunetan  
ekin etenge Balendin aundi  
biotz bero bularrean  
Egunez bai ta gau geienean  
ekindo dautsa lanari,  
astirik gutxi emoten eutson  
solas ta atsedeen barik  
Bertako lana ez zan erreza  
egin bear ba eskutuan.  
Agintariak kristau izena  
txit debakatua eukean.  
AURkitzen ba zan mixiolari  
bere berba iragarten  
ainbat lasterren atxillotua,  
gero laster ilten eben.  
Orrengaitikan gau geienean  
ara ta ona ebizan  
kristau sendiak indartuteko  
etenbagako lanean.  
Balendin gazte adorez dabil  
ildo guztitan lanean  
naiz sermolari naiz irakasle  
betiko zer egiñean  
lan guztititik maite ebana  
ezpairik baga auxen zan  
abadegaiak ondo gertatu  
on eta santu urten egian  
bertako abade ta lekaideak  
orrela geitzen ba ziran  
kristau erria Tonkin aldean  
oñarriturik egoan  
Mixiolari bere lagunak

aolkulari eukian.  
Baster danetan mixiolari  
oso entzutetsua zan.  
Bai itzez eta bai ta idatziz  
bere lana ugaria  
erri artara berari esker  
argitasuna eldu zan.  
Penitentzia aundi aundiak  
beti egiten ebazan  
oso txarto jan, lorik be gutxi  
geituz santutasunean.  
Bere etxean poztasun aundi  
santu zala jakitean  
bere amatxok gurari aundiz  
semea ikusi naian.

Zama iatorko oso gogorra  
gure Balendineri:  
Erromaldean erabagi da  
Gotzaintza emon berari.  
Ogetamar bat urte bakarrik  
gazte gazte oraindik  
baña dan danak ori ezkatuz  
amen esan dau apalik  
askatasunik ez dau elizak  
artzaintza oso gogorra  
baña bera da euskaldun gogor  
osasuner orokorra.  
Sagaratua gau illunean  
ez da aberastasunik.  
Goztain makilla kañabera da  
jantziak erdi ustelik.  
Goztain txapela Kañaberazko  
papelez inguraturik  
an ez da agiri bestetan legez  
ez ez aberastasunik.  
Goztain gaztea jauregoi baga  
ta oñez ibili bearko  
bere bidean arantzarteak  
lupatzatan bai da asko.  
Lengo lanari lotuta dago  
orain orrezaz gañera  
danen zaindari aita on ona  
lan danak bere lepora  
Artzaintza arriskuduna.  
Balendin'ek artu dauna  
soiñez gordiña, euskaldun utsa  
orrek laguntzen dautsela.  
Lau bat urtetan egin dau lana  
egun gutxitan geitu dau  
esan geinke guk an egon zala  
eundaka urtek seguruz  
Bere eskutiz ugaritatik  
ederren eta bigunak  
bere amari idatzitako  
euskera garbin egiñak.  
Ama poztu zein beti alai zan  
bere eskutitzetan.  
Berak esaten amatxo maite  
erregiña lez bizi naz.

---

## BERTSOAN

---

### MARTIRITZA

Erroma-aldetik agindua dau  
beti kontuz ibilteko  
arerioak artu ez dagin.  
GERO bat baten ilteko.  
Judas antzeko salatzaileak  
alde guztitan oi dira  
Sasi-kristau bat an be begoan  
gazte ta maltzur benetan  
agintariai salatu eutsen  
Balendintxo nun egoan.  
Arin bai laster gudari txarrak  
etorri ziran lekura.  
Eroan eben gogor loturik  
atxillo illun batera.  
espetxe txar txar izan arren ber  
Artzain santua poz pozik  
bere ezpanak irribarrez  
martiritza artu nairik.  
Tonkin aldeko eliza dago  
martirin alde otoiirik  
otoi orregaz gelditzen dira  
poztasan aundi arturik.  
Zelai batera eroan dabez  
Balendin eta lagunak  
otoi-aldi bat eskatu dabe,  
beroak euren otoiak.  
Otoi-ostean Balendin gotzaik  
diño arpegi alaiatz;  
gertu gagoz, gu orain ilteko  
Kristoren maitasunagaz.  
Mutil gazte bat urreratzen da,  
indartsua da berbera,  
bere aizkoraz jausiak dira  
buru santuak lurrera.  
Eguzki argi bero beroak  
argitzen ditu buruak  
milla ta milla txipilloteak  
egaraz agur beroak.  
Izpar eldu zan Elorriora  
Kristau-poza biotzetan  
Martiri bat da gure gurean,  
Euskal erria loratan.  
Martirin ama naigabetua  
negar ta negar dagola  
seme galdu dau, gogor da ori,  
zaurituten dau biotza.  
Laster zan bakez ama gaixoa  
gogoraturik barruan  
martiri baten ama zala ta  
poz biotzaren erdian.  
Erri guztiak txalotuten dauz  
txalo bero beroakin  
gurazo onak zintzo zintzoak,  
eder mundua eurakin.  
Gaurtik aurrera Elorrio da

gutziz ezagun garria  
Erri politik aunditasun bat  
ZORUNA bere semia.  
Azur santuak elduten dira  
Tonkiñ'etik bere errira,  
au da bitxirik eder ederren  
ornituz erri erraia.  
Ipiñi eban zorun zerrendan  
San Pio amargarrenak  
olan betetuz agintarien  
bai ta erriri eskariak.  
Arri-zurizko aldera eder  
Andra Mari parrokian  
Bere erdian zidardun kutxa,  
azurak antxe barruan.  
Bizkai guztitik aldra aundiak  
doaz bere aldarara  
osasun bake goiko doaiak  
biotzez eskatutera  
Bizkaiko errik ba dau eredu  
gazte eta indartsua  
lore ederra danen artean  
Balendin Berriotxoia.  
Agur Balendin diño erriak,  
abots eta biotzagaz,  
euskal erria zaindu zerutik  
zure otoi beroakaz.  
Gure erriak laguntza bear,  
kristau lez bizi nai ba'dau  
askoak dira arerrioak  
erri maite galdu nai dau  
Erbestetarrak bai ta etxeoak  
aldakuntza aundi dabela  
nora demontre naia dau eroan  
gure ori dan apala  
Negar dagit nik erri neuria  
nork uxatu dau guretik?  
siñismen santu bero argi  
zer bera lako argirik?

Gure erriak izango ziran  
erri guztien artean  
eder ederren loraz beteak  
kistautasun biotzetan.  
Eliz ederrak, baselizeak  
or emenka ugariak.  
Gurutze deuna mendi gaiñetan  
oroigarri bereziak.  
Abesti bigun garbi garbiak  
abesten ao guztiak.  
Oitura garbi apal apalak  
gaztedi zintzo zintzoan.  
Alkartasuna ta maitasuna  
euskal sendi guztietan,  
Jaungoiko zale otoiaria  
biotzaren barrenean.

Zorionean bizi zan erri  
baiezkor une guztitan  
Osasun eta gaixotasunan  
irri-barre ezpanetan.  
Bizi zalako une guztitan  
egiz itxaropenean.  
oiturik egon biziten beti  
Kristo maiteren fedean.

Olakoa zan bere fedea  
aitzezko eban oñarri,  
gogorak dira euren oñarria  
Anboto eta Aitzgorri.  
Lorategi bat ederragorik  
nekez emen aurkitzea  
beti da udaberria  
bizirik emen lorea  
Euskaldunentzat ziran orduan  
bizitza biak alkarrez  
munduko bizi eta zeruko,  
artuaz bizitza bat lez.  
Kristo Jaunaren maitasunagaz  
gure erria bakerik  
orren bitartez Euskal erria  
paradizu bihurturik.  
Gure martiri Balendin zorun  
zu be olan bizi ziñan  
euskal erriko goiko ortzean  
zara eredu Bizkaian.  
Biurtu eizuz euskalduna danak  
siñismen aundiz beteak  
ostera bere euskaldun danak  
biotz garbidun egiñak  
Itxaropenak zure ondora  
nakar gaurko egunean  
otoi beroka suaren billa,  
txarra da sartu gurean.  
Balendin maite ziñopa argi  
biurtu zure begiak  
zeru goi goitik zure endari  
gu garelako zeuriak.  
Aita on onak Andra Mariak  
zure bitartez zainduak  
Euskal erriak txiki aundiak  
zureganuntza begiak!!  
Nire otoi au ez da bakarrik  
gaur egun onetakoa  
gau eta egun irudimenez  
zudan dodala gogoa.  
Emen gaukazuz otoi otoiaka  
santu guztien zerrendan  
ipiñi dedin Zure izena  
Erroma uri santuan.  
Amen, amen!!

GALLASTEGI'tar  
KLAUDIO (+)

---

## ARAZOAK

---

---

# ABADEEN, ERRI-ALDATZEAK

---

Aldi onetan, abadeen erri-aldatzeak izan direala-ta, ganora bagako autu asko ibilli da erritarren artean.

Tamalgarria da, izan be, oraingo abade batzuen jokerea. Gotzaiñaren esanera makurtzeko gogo andirik ez dauke, beintzat entzuten danez.

Entzun genduan, Errigoiti'ko Elizako atea josita agertu zireala, bertako abadeak alde badi, beste abaderik sar ez daiten-edo.

\*\*\*

Poru'ko prantziskotar bat joaten izan yake Mendata'ra, baia, obispo jaunaren aginduz beste nunbaiterako bear izan ebenez, aldatu egin eben. Gernika'ko abade bat joaten izan yake, jaieguntan, baia, ara joaten asi izan zan abadeak esan eustanez, leengo igande baten, Elizako atea josita aurkitu ei-ebazan. Orretarako eskubiderik ete-dago? Ta bakea izango ba'zan, gotzaiñak ooben-egin bear. Tamalgarria!

Errenterian be abadea aldetako izan zanean ba-dakigu zelako jentemodua ibilli izan zan mezatara yoiazenai elizara sartzen galazo guraz. Aldetako zan abadeak berak esan bear eutsoen, zaratari arei, bakean ata ixillik egoteko, bera gotzaiñaren agindupean dagoala-ta.

\*\*\*

Beti ez esatearren, geienetan, beintzat, elizeak azpian atzemango ez dauzan jakitun txoriburuak izan daroaz olako ziztrinkeriak egiten auzartzen direanak. Baia, abadeak eurak be errudun dira. Gotzaiñaren esana egingo ba'lebe, eta arei, debeku bako arei, baretu daitezcan itz egingo ba'leutse, apaltasunez, elitzake olakorik jazoko, arean bere.

Abadeak ez dagoz ala, gotzaiñaren esanera? Ala, Elizearen zatiketean gura ete-dabe, norbaitzuk, euren asmuen negurriko **elizen** bat sortzeko?

Ba-dakigu leenago, batzuetan, gotzaiñak, gogortxu artzen ebezana abadeak, baia, oraingoa ez da zentzunezkoa ez gitxiagorik bere.

Ba'leite abadeen batzuk aldatzen ez ibilteko zio berezien batzuk izatea be, ara-onaka ibilteko urtetsuak direalako edo abar; baiña, gazte edo garerdiko abadeai, naiz-ta dagozan erria gogoko izan, ez ete-yake bardin an zein emen, batean naiz bestean, arimakarren jokatzea?

Esan gaiztoko abadeok jakin bear leukee, ba, Elizeari kalteak-kalte egiten diarduena. Ala, euren burukoikeriak itsuturik ez dabez ikusten Elizeari letorkiozan kalteak?

\*\*\*

Geuk bere emen, geure errian, Aiangiz'en, guztiok gogo-gogoko genduan abade zintzoa geunkan eta asko samindu izan gintzazan obispoaren aginduz beste erri batera alde bearra izan ebanean; baia, ez abadeak ez eliztarrak (erriak) ez genduan txartzat artu izan...

\*\*\*

Beste gogapen asko bere ba-yatortaz burura, baia neikoa dala uste dot au, autu tamalgarri au, salatzeke.

Zentzuneratuko al dira, ba, gotzaiñen esanera egon gura ez daben abadeak eta baita, orreik, Elizeagaitik ez Mezeagaitik bost ardura dautsen eta elizako atea josten diarduen zentzun bagako baldrazok.

AURRE-APRAIZ'ek

---

---

## SAGARDAUA ETA TXAKOLINA ONDARROA'N

---

---

Ondarroa ez da sekula izan mendira begira erri zabal eta onuratsua.

Erri legez estuago, Eleizak bere menpean artzen eban ingurua baiño.

Eizmendi'n, gaur Mereludi edo ta Milloi lez eza- gutzen dan auzunean, lau baserriko inguru txiki bat euki izan eban beti. Bost sei urte dira Berriatu eta Ondarroa-artean egindako konponketan, baserri orreik Berriatu'rentzat geratu zirala.

Asterrika auzoan, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko amazortzi baserri-etxe sartzen ziran. Errian erdiak inguru.

Errenderi auzoan, amalau etxe. Emen be ba-dira batzuk, legez Berriatu'ko diranak.

Eta Gorozika auzoan, ogei ta bat etxe, bestetan antzera emen be auzo egaletakoak Berriatu'ko udalpekoak.

Gure Andra Mari parrokiako eleiztar lez, 57 etxe guk baserri lez doguzanak. Eta besteak kaletarrak.

Kaletarren artean, lengo denboretan, arratzaleak txiro eta beartsu lez agertzen ziran beti eta euren Kofradiagazko lotueretatik kanpo, bestelakorik ez eban ezagutzen.

Alaz eta Ondarroa'n 92 kaletar etxek egiten eutsezan Parrokiari euren frutuen amarrenen eskin- tzak. Guk kale-baserritarrak deitzen geuntsen one- lakoei, euren bizimoduan bear ba'da arrantza na- gusi izango ebanak, baiña solo, sagasti eta mendi- lur jaube ziranak.

Orrela guztira 149 etxe agertzen ziran amarrenak ordaintzen ziran azken denboretako etxeen zerren- detan.

### Zelako emaitzak

Amarrenetan emoten ziran igali (frutu) eta ale- kiak, garia, artua eta txakoliña ziran.

Garia eta artua bereiztu egiten ziran, barri eta zar.

Gariaren neurritzat "kuartak" agertzen dira pa- peretan edo ta kuarta txikiak.

Artuarenak otzarak. Otzara oso edo otzara laur- denak.

Eta txakoliña azunbreka edo ta kuartilloka.

Kaletarren artean, 92 etxetatik, berrogei etxek emoten zituen txakoliñaren amarrenak.

Eta baserritarren artean, 57 etxetatik, iruk baka- rrik emoten eban txakoliña.

Ikusten da baserritarrak euren soloak gari ta ar- totarako erabilten zituela, eta kaletarrak sagasti in- gurutan maastiak eukezala, batez be itxas-ertz edo ta itxas-gaiñeko lurraldeetan.

Berezigarri da onetan jakitea, txakolin-emole lez agertzen diran baserriak erri buruan dagozanak di- rala: bat Arteta, Goimendiko sarreran, bestea Burgo, Santa Kutz ermitaren azpian, eta bestea Zal- duburu ia errian bertan.

Arteta baserriak 26 azunbre emoten ba zitun be, ba egozan kaletarrak 60'tik gora emoten ebezanak.

Esateko, Sebastian Arrasate'k 87; Domingo Ibai- barriaga'k, 60; Jose Mugartegi'k, 66; Domingo A1- korta'k, 88; Patxi Gelaloro'k, 80; Iñazio Zubika- rai'k, 83; Franzisko Basterretxea'k, 90; Paula Goi- tia'k, 70 eta besteak gitxiago.

Ikusten danez 40 etxetatik, zortzik baserritarren emoitza bikoiztu edo ta oraindik geiago eskintzen eban.

### Zelan galdu zan txakoliña?

Gogoan daukat ni txiki nitzala, nire gurasoak ba eukezala iru edo lau sagasti txiki.

---

## LANAK

---

Sagastiak urtero eskatzen eben atxurketa lana, eta zortzi-amar urte neukazala, euretara joaten nitzan an erabilten gendun atxurlariari "erraziñoia" eroatera. Eta an ordurako sasiak gainduta eukezan maastietan garau galdu batzuk batzen ibilten giñan. Baiña ordurako indarra eta bizitasuna galduta euken.

Sagarrak bai berea emoten eban eta etxerako urte guztirako sagardaua gordeten euskun sagarra artzen euskun tolara eukan batek. Gure etxean noiz-beinka ikusten gendun maian, jatorduetan, ardaua. Baiña txakoliña egitea ordurako galduta egoala esan bear.

Jakiña da azken gizaldiaren burutzean, koko ugari sartu zala inguru onetan egozan gaztañadiak galdu eragiñaz. Orrelako zerbait gertatu ete zan matsagaz?

Ezin ukatu, 1828 urtean eta geroagotan, amarretetan milla ta zazpireundik gora azunbre emoten ba ziran eleizarentzat, ogei milla azunbre batuko zirala beintzat.

Erriaren aldetik txakoliñak beti euki izan eban oiturazko laguntza eta aldezen bat.

Errian artzen zan txakoliña amaitu arte, ez zan lagaten albo-erri-etakorik ekarten. Ba dira irureundak urte orrelako neurriak artzen zirala.

### Tolarak

Sagardaua egiteko tolara asko egozan erri ta inguruan. Erri barruan, kalean, 28 aiña zenbatu eikezan gizaldiaren lenengo ogei urte-etan.

Erri barruan ba-egozan 26 sagardandegi.

Zarrak esaten ekien sardiña denboran sagardandedi bakoitzak egun-ean 500 litro saltzen zitula.

Aste Santua denbora egokia izaten zan sagardau asko saltzeko.

Sagardandegi baten iragarki au ezagun izan zan:

Ekarri nai dabenak  
besigu nai lebatza,  
nai kolaxo nai momatxa,  
edo papardo baltza,  
olioa debalde  
ogiaren kobrantza,  
emen ez da faltako  
ojaela ta ikatza.

Ondarroa'ko sagardauak ospe andia euki eban Bilbao ingurutan. Gazte giñala ainbat lekutan ikusten genduzana "Ondarroa'ko sagardaua" iragarten ebenak.

Dana ete zan Ondarroa'koa?

Onetan esan daigun gure portutik eroana bai, baiña Berriatu'n beti ezagutu genduzan sagardautegi ospetsu bi eta beste ainbat baserrik be bukoiak gertuten zituen Ondarroa'tik itxasoz bialtzeko.

Emen bukoa deitzen jakon 500 litro artzen eban zan tresnari eta upela geiago artzen ebanari.

Sagardaua zenbaten saltzen zan?

Lengo zarrak ba dakie gogoratzen "Diburtzio" zanaren "pregoi" umoretsu bat:

Gogoz entzun  
ta ez izan gorra,  
gaur, esan bearrik ez nun,  
sagardau superiorra.  
Txori andiaz  
iru baso  
edo akaso  
lau baso.

Eta zelako sagarrak genduzan?

Aitz sagarratik asi, bost-kantoi, gorri-garratza, ipurdi-zabal, sanjun sagarra, txabillu, urte-bete, urre-sagar eta abar, berrogetamar mota gitxienez ezagutu eta bereiztuten ziran inguru onetan.

Orra kontu zar batzuk, beti be jakingarri gertatzen diranak.

ZUBIKARAI TAR AUGUSTIN



---

**ZERGAITIK ZANA'REN**

---



ainbeste esakun egoki ta polit eta ainesgarriago burura etorriko yakuz, ta gero miñera edo lumara.

Adibidez esaterako: Garay'tar Ander joan yakunaren illeta; Yturbe'tar Marimil mundu onetatik zerura igon dauana'ren oroimena; Ysasi'tar Gotzon bizi ilkor onetatik betiko bizitzara eldu dana'ren Eleizkizuna 8'garren Lora-illean.

Gizarteko eginkizunetan alegiñak egin bear doguz geure fede-sinimena berbiztu daiten. Osteantzean, Prantzia-Erri artean XVIII Gizaldian lez, gure Euzkadi maitagarrian, Jainko Doai Eder dan sinismen barik aurkituko gara.

Ori bai izango litzake benetan Euzkadi-Sortzaille Sabino Arana Goiriren abesti batek diñoanez" tamal andia, oñaze latza.

Eskaldunok orain arte beintzat izan gara erlejiño-zale, Jesukristo'ren jarraille zintzo ta kristiñau onak. Dan-danok batera gure etorkizuna, eriotz ostean, betiko dala uste dogu. Sinisten dogu sendotasun alda ezinaz, betiko bizitzea. Gizaki, norbera bakoitza, baltz-zuri, jakitun ezjakiña, ziur, eztabaida, zalantza barik, betikoa izango da.

Zegaitik, ba, norbait iltean, esaterako: Etxebarria'tar Miren zanaren eleizkizunak egingo dira. Uriarte'tar Kepa zanaren illeta. "Zanaren" aditzak esan gura dau, euskaldun guztiok dakigun lez, izan zana. Olan adierazten dogu itzelezko eztabaidaz aitatzen dogun notin-norki eztala bizi gure artean; gure artean bizi zala.

Esaera ori, ain txarto esanda, erabilten dogu alperkeriz geure adimenari ez lanik emotearren. Apurtxu bat baiño ezpadogu gogartzen zelan obeto esan geinkean, ainbeste ta

**iOñazez!**

(Nabarra-eresia)

**Bizkaieraz.** Aldi baten gure Ama,

Aberri maitagarriak

Semiok genkuzan edur

Barria baixen garbiak.

Orain, oster,

Itxasi yako

Arrotzen dongakeria...

iAu tamal mingotza!

iAu oñaze latza!

iOrbandu dala Aberria!"

LETONA'k

**EUSKAL-ASTEA BIZKAIERAZ**

Aurten be Euskerazaleak Alkartea'k eratu nai dau Euskal-Astea. Baiñapizka bat atzeratu egingo dogu, berbaldietarako gelea aske izateko aukera ohea dalako.

Abenduaren lenengo astean izango da ba, gure Euskal-Astea, uste dogunez Rekalde Kaleko Eskolapiotarren Ikastetxean: Abenduaren 9n.egunetik 13'garren egunera bitartean, arratsaldeko 8'retan.

Euskaldunak, batez be Bilbao'koak, kontuan artu, egun orreitan zuen egutegian beste ekintza batzuk ez artzeko.

Gaiak eta izlariak urrengo zenbakian agertuko doguz.

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK

---

# AZTERTU TA EZTABAIDATU

---

Gaurko gure giro onetan, au argi ikusten dogun gauzea da: dana aztertzen eta eztabaidatzen da. Geiago oraindiño: Aztertze eta eztabaidatze onetan, sarritan, personak iraindu eta gaiztotzat artu, egiten dira.

Jokabide onetan errigintzan, politikan, diarduen gizonak eta andrak izaten dira bizienak eta ez eredu onak.

Orain urte batzuk, gitxiegi aztertzen ziran gauzak, orain ostera, bear ba'da, larregi.

Arlo onetan be, dendu edo oreka egoki batera eldu bear genduke gizakiok, baiña gaisoak eurak be epea bear izaten dabe osatzeko. Antzera gaisokia dan jokera onek be astia artu bearko dau bide egokira eltzeke edo biurtzeke.

\* \* \*

Ontzat artu ete leike aztertzeraz eta eztabaidatzeraz gizakiok daukagun aspaldiko jokera au?

Zalantza barik, ba-dauz bere alderdi onak. Ara batzuk.

Berez illunak diran arazoak, sarritan argiagi ikusten dira, bakoitxari zer-pentsau emoten jakolako. Zuzentasuna billatzeko bidea ba-da aztertzea eta eztabaidatzea. Eta gaiñera, gizartean beti izaten diran gaitzak eta jokabide okerrak zuzentzeko be bidea izaten da. Azkenez, jokabide ori egokia da, pertsonak eldutasunera sartu daitezkan: Aztertzen ez dauan gizakia ez da eltzen eldutasunera.

Baiña jokabide orrek ba-ditu bere alderdi txarrak be. Ona emen batzuk: Gizakien artean asarreak eta oztasuna sortzen dira, aztertze ori nekez izaten da maitasunerako bidea, bear ba'da ondo egiten ez dalako edo ondo artzen ez dakigulako. Eta sarritan aztertze orretan ez dira bagirutzen norkien eta jazokizunen alderdi txarrak baiño. Ez da ba, azterketa utsa bakea sortzeraz eltzen.

\* \* \*

Gaurko gizakia, aztertzeraz ta dana eztabaidatzeraz jokera ori dala-ta, minduta eta bildurtuta bizi da. Gizakiak sarritan ez dauka bizi-pozik, bere egiteak eta ekintzak gitxitan eta nekez onartzen diralako, eritxiak agertzeko be bildur da.

Benetako bakea nai ba'dogu, eta nai dogu, zuzentasunagaz eta aztertze zorrotzagaz batera, alkarreganako maitasuna ta poza bear doguz, eta orretarako bear-bearreko gauzea da ekintzak dituen alderdi onak be billatzea.

\* \* \*

Zein izan daiteke orduan urtenbidea?

Aztertze osoa ta sakona egitea: Alderdi onak eta txarrak ikusi, ondoren onak eta txarrak agertu, arazoa beste batzuk zelan ikusten daben agertu, eta, au fededunentzat, Jaungoikoaren eta Ebanjelioko Jesus'en ikuspegia billatu, aztertzen dan arazo orreri begira.

Ori orrelean egin ezkerro, aztertzea ta eztabaidatzea askoz onuragarriago da gizakia bere eldutasunera sartzeko eta alkarren arteko maitasuna sortzeko. Zuzentasunak be toki zabalagoa izango dau eta gizakien artean izan bear dan oreka ta dendua ohea izango da.

\* \* \*

Gure kondairan aldi batzuk izaten dira jauskorak eta beste batzuk iraunkorrek edo egonkorrek, eta olako aldiak bein bata eta bein bestea sortzen dira: Erdi-aroa egonkorra ta Ber jaiotza jauskorra, klasiku barria egonkorra eta erromantikuena jauskorra.

Gure bizitzan aldi egonkor bat izan dogu eta, batez be 1968n.urtetik aurrera giroa jauskor biurtu jaku. Eta gu, giro egonkorrean biziteko eziak izan garanak, giro jauskorrean aurkitzen gara. Eta ori gure bizitzarako oso mingarria da: Egonkor izateko eziak izan eta jauskor-giroan geure buruak ikusi.

Dana dala, giro au izan da gutzat eta ba-daukagu pozbide aundi bat be: Gure aldi onetan mundu barri bat dagoala sortzen eta guk, urrengo mundu ori ohea izan daiten geure aletxua ekarri bear dogula geure bizitzan. Nekez, baiña pozez, egin bear dogu lan au.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

## IZEN ONA

Nok ez daki Cervantes nor zan eta bere idaztirik aundiena ta mundu zabalean ospe aundikoa zein dan?

Eta nok ez dau entzun Cervantes euskaldunen lagun ona zala eta euskaldunak bere liburuetan aita-tzen dauzanean, goratu egiten dauzala beti?

Umore onekoa dan Mantxa'ko Kixote liburu orretan, bein baiño geiagotan aitatzen dauz euskaldunak eta euren alde berba egin.

\*\*\*

Olako zati bat ekarriko dautzuet ZER aldizkari onen irakurleai.

Idazti orren atal guztiak erakusten dabe egillearen buru argia eta barre eragiteko ba-dira Kixote Jaunaren otsein dan Santxo Pantza'ren jazokizun batzuk, batez be orain gogoratuko dogun Barataria Ugartearen agintari egin ebenekoa.

Lagun-talde aundiakin eroan eben Santxo, milla auzo eukazan erritxu batera, Duke Jaunak eukazenetatik onenatarikoa zan errira.

An adierazo eutsoen Barataria Ugartea zala, toki areri Baratario izena egokiolako, baita duan emoten eutsoelako.

Erri-ingurura eltzean erriko Jaurleak urten eutsoen bidera bera artzera: Kanpaiak jo ebezan, auzoko guztiak poztasunaren ezaugarria emon eben eta aundikiro eleiza nagusira eroan eta Jaungoikoari eskerrak emon eutsoezan, eta gero arau baragarriak beteteko erriko giltzak emon eutsoezan eta Barataria Ugarteko betiko agintaritzat artu.

\*\*\*

Agintariaren soiñekoak, bizarrak, loditasunak eta txikitasunak konkortuta eukazan ango gizatalde guztiak.

Azkenez, eleizatik atera eta epaitegira eroan eta epaiketak egiteko jesarri -azo eben.

Baiña Santxo'ri ez eutsoen emoten berak jan gura ebana eta gosekilik erabillen.

Osagillea eukan. Onen izena Pedro Recio de Mal Agüero eta beronen erria Tirteafuera.

Bein ez eutsen emon Santxo'ri jatekorik naikoa eta Santxo asarratu egin zan: Osagilleari aurkia jaurti gura izan eutson burura eta lenbaitlen andik atera egiela agindu eban gogor.

\*\*\*

Beste bein (eta emen dago nire asmoa, idazlan au idazten asi nazenetik eta IZEN ONA idazpurua ipinteagaz agertu nai dodana) mai-zaiñak leiotik begiratu eban eta gero esan eban: Karta-banatzaillea dator!

Eldu zan Karta-banatzaillea Santxo ta onen gizataldea egoan lekura, sartu zan barrura izerditan, eta ikaraturik sakeletik papel bikoitxa atarez Gobernadorearen eskuetan ipiñi eban eta Santxo'k etxezaiñari agindu eutson onen gaiñeko idazkia irakurri egiala. Auxe iñoan: Barataria Ugarteko agintari dan Santxo Pantza'ri, beraren eskura edo bere idazkariaren eskuetara.

Ori entzunik, Santxo'k esan eban: Zein da emen nire idazkaria? Eta aurrez egoan batek erantzun: Neu naz, jauna, idazten eta irakurten dakidalako eta ganera bizkaitarra naz.

Gogoratu dagigun ondo ZER aldizkariaren irakurle euskaldunok, entzundako erantzun au eta poztu gaitez. Ez bakarrik Santxo Kixote, Cervantes'ek, aldi aretako beste askok be olako gogapen ona eukela euskaldunai buruz.

Erantzun ori urrezko izkiz zintzeldu-bearrekoa da. Euskaldunak iltzailleak ez ba'gara, euskaldun izateagaz ederto izan geintekoz Kaiser ber-beraren idazkari.

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*



**Bilbao Bizkaia Kutxa**